

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko zenbait elkarte eta erakundeen laguntza ezinbestekotzat jotzen dugu. Besteak beste ondorengoekin jardungo dugu elkarlanean:

Lehenik, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen bitartez gure proiektuaren zati bat finantzatuko dugu. Enpresaren ekintzak, hitzaldiak, behar diren materialak eta abar aurrera eraman ahal izateko, diru-sarreraren %15 haiek proportzionatuko dizkigute. Eusko Jaurlaritzarekin kontaktuan jarriko gara hainbat ekintza planteatzeko, haiek gabe gure proiektua aurrera eramatea ezinezkoa izango delako.

Bigarrenik, hitzaldi, sentsibilizazio kanpainak eta formakuntzak emateko pertsona adituak behar ditugu. Beraz, hainbat pertsonen laguntzaz baliatuko gara: adibidez, Javier Martín Chivelet, Juncal Cruz, Elena Pérez eta Miguel Tamayo. Pertsona hauek Estatu maila alor honetan lanean diharduten adituak dira.

Hirugarrenik, Green Peace-kin kontaktuan jarriko gara. Elkarte hau garrantzitsua denez eta mundu mailan eragin handia duenez, haiekin proiektu bat sortzea aukera ona dela uste dugu.

Gure helburua hurrengoak izango da: aldaketa klimatikoak dakartzan ondorioei buruzko kontzientzia sortzea. Proiektu honekin aplikazio bat sortu nahi dugu. Aplikazioaren bidez jendeak ikusiko du bere begiekin nolakoa izango litzatekeen mundua aldaketa klimatikoak aurrera egingo balu. Bi atal sortuko ditugu: bat enpresentzako eta bestea pertsonen eguneroko bizitzarako.

Enpresen atalean hiru bideo aurkituko dira eta bideo hauek ikusteko 3D-ko betaurrekoak beharko dira. Gainera, betaurrekoak ez erosten laguntzeko, gure webgunera igoko dugu bideo bat azalduz nola egin kartoizko batzuk. Bideo hauek erakutsi nahi dutena da nola eragiten duten aldaketa klimatikoan; adibidez, kanporatzen duten CO₂-a edo ibaiak kontaminatzea. Beste atalean aurkituko diren bideoek erakutsiko dute nolako eragina duen gure etxeetan egiten ditugun gauzak eta nolakoa izango den gure bizitza horrela jarraituko

bagenu. Azkenik esan beharra dago aplikazio berean dirua donatu ahal dela Green Peace-n elkarterako, laguntzeko haien lana egiten.